

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2025 Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa. Onespena ematea landako askotariko zerbitzuak ezarri, handitu eta hobetzea sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorre

Laguntza hauen helburua da 1.000 biztanletik beherako herriguneetan egiten diren inbertsioak finantzatzen laguntzea, herrigune horietan gaur egun ez dauden landako askotariko zerbitzuak eskainiko dituzten negozioak ezarri ahal izateko, bai eta lehendik daudenen instalazioak egokitu, handitu edo hobetzeko ere, baldin eta kasuan kasuko udalerrian negozio hori bada landako zerbitzu jakin bat eskaintzen duen bakarra. Laguntzak 20.000 biztanletik beherako udalerrietarako izango dira.

Negozio horietan, batez ere merkataritza jardueri dagozkien zerbitzuak emango dira, eta, haien osagarri, turismo, jatetxe eta telekomunikazio zerbitzuak, bai eta gizarte, enpresa edo lanbide zerbitzuetan dauden beste gabezia batzuk estaltzekoak ere. Horiek horrela, negozioak janari dendak edo taberna-dendak izan daitezke, edo aipatutako herriguneetan gaur egun finkatuta ez dauden beste batzuk, hala nola ile apaindegiak, podologia zerbitzuak, masajistak eta abar.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak badaki landa eremuan bizitzeak zailtasunak dituela, eta mugak izaten direla toki horietan zerbitzuak izateko. Horregatik, landa eremuan garapen ekonomikoa sustatze aldera, landako askotariko zerbitzu horiek ezarri, handitu eta hobetu daitezen sustatu nahi da, herriguneetako gizarte jarduera dinamizatzen ere lagunduko baitute.

Kontsideraturik beharrezkoa dela oinarri argi eta zehatzak ezartzea dirulaguntza horiek esku-ratzeko, eta oinarri horiek objektibotasun, lehia eta publikitatearen printzipioak bermatu behar dituztela, eta, halaber, aplikatuz Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritakoa, hona hemen landako askotariko zerbitzuak ezarri, handitu eta hobetzea sustatzeko laguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Oinarri arautzaile orokorrak idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritako arau esparrua.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri arautzaile orokorretan kontuan hartu da euskararen erabileraren faktorea, Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24.5 artikulua xedatzen duenez, foru diputatuei dagokie Foru Gobernu Kontseiluari proposatzea beren sailari esleitutako gaiei buruzko foru dekretuak onets ditzala.

Horregatik, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea landako askotariko zerbitzuak ezarri, handitu eta hobetzea sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrei.

Aipatutako oinarriak foru dekretu honen eranskin gisa jasotzen dira.

Bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu dadila.

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA

ERANSKINA

**Landako askotariko zerbitzuak ezarri, handitu eta hobetzea
sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak****1. Xedea eta helburua**

Laguntza programa honen xedea da lokalen egokitzapena eta hornidura finantzatzea, eta instalazio hauek abian jartzea, handitzea eta hobetzea:

a) Landako askotariko zerbitzuen saltoki deritzenak; funtsean, merkataritza eta jatetxe jarduerak.

b) Landa biztanleentzako gizarte, enpresa edo lanbide zerbitzuetako beste gabezia batzuk arintzeko zerbitzu berriak. Kasu horretan, etxera eramateko zerbitzua moduluen bidez diruz lagundu ahal izango dira.

Landa eremuan merkataritzak betetzen duen funtzio soziala sustatu nahi da, landako askotariko zerbitzu horiek ezartzen lagunduz.

2. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu ahal izango dira laguntza lerroen xedearekin zerikusia duten ekintzak, jarduera hori ez dagoen 1.000 biztanletik beherako herriguneetan egiten badira edo, helburua hobetzea edo handitzea izanik, establezimendu hori bakarrik dagoen gunetan egiten badira. Inola ere ez dira diruz lagunduko 20.000 biztanletik gorako udalerrietako jarduketak. Deialdian aurrekontu ekitaldi bakoitzerako diruz lagundu daitezkeen jarduketak zehaztuko dira.

Deialdiak honako hauek jaso behar ditu:

a. Zein xedapenetan jasotzen diren oinarri arautzaileak eta ALHAOn zein aletan argitaratu diren.

b. Dirulaguntza egozten zaien aurrekontuko kredituak eta deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, guztira, erabilgarri dauden kredituen barruan edo, bestela, dirulaguntzaren zenbateko estimatua.

- c. Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua.
- d. Dirulaguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatzeko bidea.
- e. Zein organok duten prozeduraren instrukzioa egiteko eta ebazpena emateko eskumena.
- f. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.
- g. Ebazteko eta jakinarazteko epea.
- h. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioa.
- i. Behar den kasuetan, eskaerak zuzentzeko aukera dagoela, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 27. artikuluan xedatzen denaren arabera eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak 25. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri.
- j. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen ote duen, eta, horrela ez bada, zein organori aurkeztu behar zaion gora jotzeko errekurtsoa.
- k. Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

3. Gastu hautagarriak eta baldintza gehigarriak

1. Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira, soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaera daukatenak eta behar-beharrezkoak direnak; bai eta zeharkako zergak ere, onuradunak berreskuratu ezin baditu.
2. Horrela, diruz lagundu daitekeen aurrekontuan sartu ahal izango dira dirulaguntza hauen helburuarekin lotuta toki erakundeek eta partikularrek egiten dituzten gastuak.
3. Kasuan kasuko deialdian jasoko da bateragarria den estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk xede bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin.
4. Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza eta diru sarrera batzuekin batera, ezin da izan jardueraren kostua baino handiagoa.
5. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduketak behar bezala eta erabat gauzatzeko behar diren izapide guztiak egin behar dituzte eta behar diren baimen guztiak lortu behar dituzte, lanak hasten direnetik behin betiko jaso arte.

4. Baliabide ekonomikoak

Kasuan kasuko deialdiak zehaztuko du oinarri hauen bidez deitutako dirulaguntzak guztira zenbatekoak izango diren eta aurrekontuko zein partidari egotziko zaizkion.

5. Erakunde onuradunak

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak eta pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izan daitezke dirulaguntza hauen onuradun.

Lokalen jabetza publikoa edo pribatua izan ahalko da. Eskatzailea ez bada jabea, higiezinaren jabetza egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da, bai eta jabeak jarduketak egiteko emandako baimena ere.

Ezin izango dira erakunde onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zehapena jaso dutenak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako kasuetan daudenak ere.

6. Dirulaguntza emateko prozedura. Balioespen irizpideak, dirulaguntzen banaketa eta haien zenbatekoa

Dirulaguntzak nori eman norgehiagoka bidez ebatziko da. Deialdiak ezarriko du zein izango diren balioespen irizpide objektiboak, eta, hala badagokio, irizpideak nola haztatu ere ezarriko du dirulaguntzaren xedea kontuan izanda, eta kontuan hartu beharko da, nahitaez, aurrekonturik dagoen.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek telematikoki aurkeztera behartuta daude, egoitza elektronikoen berariazko izapidearen bidez: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

Horrez gain, eta aipatutako lege testuaren 14.3 artikulua arabera, elkargoko kide izan beharrik ez duten eta enpresa edo lanbide jarduera bat egiten dutenek edo egingo dutenek ere telematikoki aurkeztu beharko dute.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, kasuan kasuko deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera balioetsi gero 150,00 eurora edo, hala badagokio, deialdiaren oinarrietan xedatutako zenbatekora heltzen ez diren eskaerak.

Erakunde eta pertsona adjudikaziodunak ebazpenaren jakinarazpena jasotzen duenetik hamar egun baliodunetan dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badio, ebazpenean ezarritakoa onartu duela pentsatuko da.

7. Erakunde onuradunak dirulaguntza jasotzerakoan lortu nahi zuen helburua lortu izana justifikatzeko modua eta epea, eta ordainketa

Dirulaguntza ordaindu baino lehen, haren xede den jarduera egin dela justifikatu behar da. Dirulaguntza ordaintzeko, deialdian adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da. Kasuan kasuko deialdian ezarriko da hura aurkezteko gehieneko epea.

Bat etorritik foru araudian ezarritakoarekin, justifikatu beharreko aurrerakinak emateko aukera dago; horrelakoetan, erakunde onuradunak zenbait fasetan justifikatu ahalko dute ordainketa. Deialdian zehaztuko dira aurrerakinaren ehunekoa, justifikatzeko epea eta ordainketak.

Lokalak egokitzeko eta ekipatzeko gastuen eta instalazioak martxan jartzeko, handitzeko eta hobetzeko jardueren justifikazioa honela egingo da, deialdian gehiago zehaztu daitekeen arren:

- a) Burututako jardueren azken memoria zehatza eta azalpenzkoa.
- b) Izandako gastu guztien zerrenda sailkatua. Zerrenda horrek gastu bakoitzari buruzko honako datu hauek jaso behar ditu: gastuen agiriaren edo fakturaren zenbakia, hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data.
- c) Gastua egiaztatzen duten fakturak eta haien ordainagiriak.
- d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreraren eta jasotako edo eskatutako dirulaguntzen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- e) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren soberakinen kasuan, baita horietatik eratorritako interesena ere.

Etxera eramateko zerbitzuaren moduluak egiaztatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Dirulaguntzaren xede den etxera eramateko zerbitzua gauzatzeari buruzko informazioa jasotzen duen justifikaziozko jarduera memoria bat, etxera eramateko zerbitzu horiek azalduta.
- b) Etxera eramatearen ondoriozko gastuen kasuan, modulutzat jotzen diren unitate fisikoen kopuruari buruzko egiaztapena edo, halakorik ezean, onuradunaren aitopena.

8. Babesa

Dirulaguntza jaso duen jarduera dela-eta egiten diren argitalpenetan, liburuxketan edo bestelako publizitate modu guztietan Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak emandako dirulaguntzaren berariazko aipamena egin behar da. Horrez gainera, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatuko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidetasunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabiliko dira.

9. Dirulaguntza itzultzea

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan, jasotako dirulaguntza itzuli beharko da.

Onetsitako dirulaguntzaren gainean jasotako zenbatekoak itzultzea zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da, eta Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera kobratuko da.

Ondoko kasu hauetan oinarriak ez dira betetzen:

- a) Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada.
- b) Dirulaguntza eskuratzen bada eskatutako baldintzak bete gabe.
- c) Dirulaguntza helburu baterako eskatu eta horretarako erabiltzen ez bada.
- d) Onuradunak ez baditu betetzen dirulaguntza jasotzeagatik jarritako baldintzak.
- e) Kontrol edo egiaztatze jarduerak oztopatu edo galarazten badira.
- f) Jarduera egiteko behar den baino diru gehiago jasotzen bada. Kasu horretan, jardueraren kostuaren gainetik eskuratutako soberakina itzuli beharko da, bidezko berandutze interesak gehituta.
- g) Ez bada aitortzen xede bererako beste dirulaguntzaren bat jaso dela.

10. Egiaztapena

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuak deialdien garapenerako egokitzat jotzen dituen ebazpenak emango ditu, dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta ekintzak abiarazi ahal izango ditu onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute berek egindako jardueri buruz Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakunde batzuek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

11. Erantzukizunak

Onuradunek beren gain hartzen dituzte dena delako programa eta/edo jardueraren ondoriozko erantzukizunak, eta orobat indarrean dagoen legeriak programa eta/edo jarduera horiek gauzatzeko galdegiten dituen baimenak eskatzeko ardura.

12. Aldaketak

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrelakoetan, diruz lagundutako gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko gehieneko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldatetaren bat gertatzeak eta edozein erakunde publiko edo pribaturen xede bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzeak dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekarriko du, baita dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea ere. Behin dirulaguntza onetsi eta gero, dirulaguntza emateko oinarri hartu ziren benetako egoe-
rek dirulaguntza hori aldatu beharra badakarte, Lurralde Oreekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuak, onuradunaren proposamen arrazoitua aztertuta, dirulaguntza alda dezake, dagokion foru aginduaren bidez.

13. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza Aldundiko Lurralde Oreekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak ebatziko du.

14. Errekurtsoak

Oinarri hauek eta beren ondoriozko administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den moduan.

15. Aplikatu beharreko araudia

Oinarri hauetan xedatzen ez dena hauek arautuko dute: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Aurrekontuen urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorra; indarrean dagoen Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta aplikagarri diren gainerako arauak.